



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

HERNANIKO UDALA

Iragarkia

Alkate honek bi mila eta hogeita biko abuztuaren hamazortzian ondorengo hau ebatzi du:

2022ko uztailaren 7ko 2022/00001591 alkate ebazpen bidez, Hernaniko Udaleko Udaltzaingoko Ofizial plaza oposizio-lehiaketa askez betetzeko hautaketa prozesuaren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen. Ebazpen hori Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko iragarki taulan eta Hernaniko Udaleko web orrian (www.hernani.eus) argitaratu zen.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epea amaitu da eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Hautaketa prozesua arautzen duten oinarriekin eta dagozkidan eskuduntzekin bat etorriz, eta eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena. Hautagaien onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea, ebazpen honi atxikita doakiona.

Bigarrena. Zerrenda hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko iragarki taulan eta Hernaniko Udaleko web orrialdean (www.hernani.eus) argitaratuko da.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke ebazpena eman zuen organoari argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsorik aurkez daiteke.

Hernani, 2022ko abuztuaren 18a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (5447)

BEHIN BETIKO ONARTUEN ZERRENDA/LISTA DEFINITIVA DE PERSONAS ADMITIDAS

<i>Sarrera erregistroa Registro de registro</i>	<i>1. Abizena 1. Apellido</i>	<i>2. Abizena 2. Apellido</i>	<i>Izena Nombre</i>	<i>NA DNI</i>
4047	ANSA	ELOLA	JABIER	***5091**
3344	BALERDI	DE FRANCISCO	MARINA	***9537**
3708	ERKIZIA	POSTIGO	KOLDO	***6869**
3577	ETXEBERRIA	ESNAL	MIKAL	***4028**
3828	GALARRAGA	ERRAZKIN	HARKAITZ	***5032**
4094	OTAMENDI	IRASTORZA	ANDONI	***3147**
4040	PIKABEA	LERTXUNDI	ANDONI MIRENA	***7027**
4046	SAGASTIBELTZA	ELOLA	URKO	***5856**
3680	SALDIAS	ONDARRA	JULEN	***6651**
3996	YUBERO	ZARRALUQUI	JAVIER	***6918**

BEHIN BETIKO EZ ONARTUEN ZERRENDA/LISTA DEFINITIVA DE PERSONAS NO ADMITIDAS

Ez dago ez onartutako izengairik/ No hay aspirantes excluidos/as.